Nikolas Alzolaren Oroitzapenez

Gure bizitza laster hontan nekez oroitzen gara lagun on baten balioaz. Lagun on bat heriotzak daroanean bururatzen zaizkigun oroitzapenezko gogoeta guziak samurtzen dute gure bihotza. Askotan norberekiko gogoetatik haruntza ez doaz, baina bizi garen gizarte hontarako, norbere laguna izatez gainera bestelako garrantzirik baldin badu, ezin isil egon. Askozaz gutiago lagunaz gainera herri baten kulturgintzan bere bizitzaren ordurik gehienak dituen gizona baldin bada, eta hala da duela egun guti, hil honen 2an, Irundik heldu zitzaigun berri beltzak zekarren izenekoa: Nikolas Alzola Gerediaga (La Salletarretan Anai Balentin Berriotxoa bezala ezagutzen zena).

Bai, bera fisikoki mugitu zen gizartearen inguruan bi izen horiekin oso ezaguna zen; ezaguna irakaskintzan eta ezaguna euskal kulturan, baina ezagunagoa ontsasunaren eredu norbait izendatu behar zenean. Nik, pertsona onak asko ezagutu ditut, baina ontasunean eta zintzotasunean inor ere ez Nikolas hainakorik. Izan ere, Nikolas, katolikoek santutasunez eman izan duten irudiaren erakoa zen bere izakeraz. Pertsona ona eta beste edonorren parte ona soilik ikusten zekiena eta beti nornahiri laguntzeko gertu. Hark bezala ikasiko bagenu lagun urkoa maitatzen, gure gizarteak zori hobea izango luke. Holakoa zenez, berakin harremana izan duten guziak maite zuten Nikolas.

*Nikolasek apaltasunez egiten zituen bere lanak. Apala zelako, idazlanik gehienak izenordeekin ematen zituen Euskal Herriko kultur aldizkarietan. Ba ote aldizkaririk bere lanen bat agertu ez duenik? Ezetz esango nuke. Bere **Atalak** zeritzan liburuari egin nion hitzaurre hartan nion bezala, gure Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Balendin Berriotxoa, N. de Cortazar, Bitaño, Markue, Ozerin-Jauregi, Altzarte, Dolometa, Oxiñondoko Txoria, V. del Parral edo danalakoa. ez da erreza izanez eta izenez mugatzea. Bere idazlangintzaz eman duenaz zerbait jakin nahi badugu, ikus Jon Bilbaoaren **Eusko Bibliographia-ren** lehen tomoko 132-134 orrialdeak eta bereziki VIII. tomoko 433-438 orr. Baina, ez uste hor bertan ere guzia jasoa dagoenik.*

*Liburuak ere, sei liburu argitaratuak zituen, eta zazpigarren bat inprimategian. Hauetan ere izenordeak erabiltzegatik edo, bere heriotzari buruz egunkarietan idatzi dutenek, ez dute eman bere liburu guzien berririk. Gazteleraz idatzia eta N. de Cortazar izenordearekin **Cien autores vascos** argitaratu zuen 1966an. Euskaraz idatzi zituen liburuak ordea, Bitaño izenordez, honako hauek dira: **Atalak** (1967), **Bigarren atalak** (1972), **Hirugarren atalak** (1978), **Ipuinak (1978) eta Ipuinak-II (1980). Eta, esan bezala, Ipuinak-III** imprimategian, laster argitaratzekotan. Lehen liburuak ehun egileen bizitza eta lanen berriak aurkezten ditu; euskarazko **Atalak** sailekoetan ordea: elezahar, kontu berri, pasaixuak (gertaerak), saio-oharrak olerkiak, egileen xehetasunak, jakintza oharrak eta abar. Lehen biak bizkaieraz eta hirugarrena euskara batuan; **Ipuinak** sailean, haur eta nagusientzako ipuiez gainera zenbait kondaira egokitu biltzen ditu.*

Bigarren ipui liburuari egin nion hitzaurrean adierazi nuen bezala, lanok, aurpegi ona erakutsiz bizitzaren filosofian, nekealdietan kantaz eta itxaropenez etsedena hartuz aritu zen. Luma ez bazen, pintzelak eskuan, letraz adierazi ezina "fauve" eskolak eskaini zituen kolore eta estiloaren aukeraz. Zeren, gutik dakite gure artean Nikolas pintorea ere bazela, eta ez nola nahikoa, ber berak uste zuen baino hobea baizik. N. Madariagarekin egin zituen bere arte ikastaroak, geroago bere batarik onduko zituenak. Akuarelagile ona zen, arte berezi honek eskatzen duen teknika egoki benderatuaz. Atseden orduetan pintatzen zuen, bere barnearen lasaitasunerako lagungarri iduritzen zitzaiolako. Hala aitortu zidan behin batian. Gainera, bere obrekin sari bat jarri zuen Durangoko Liburu Azokan, urtero, euskal kulturan nortasuna zuen idazleren bati lauki bat eskainiz.

Bere lana ugari delarik ere, horrez gainera landu zuen beste alor bat ere: gutunak. Berak, laguneri eta harat honat galdereri erantzunez egin zituen milak eta milak gutunak bildu ahal balira, euskal kulturarentzat gordailu ederra lortuko genuke. Izan ere, nork ez zion eskatu Nikolasi historiaz, literatuaz, pertsonaz, leinuz edo beste zenbait gaiez agiri edo oharren bat? Nikolas, beti prest bere memorian gordetzen zuenaren berri emateko, eta bere memoria hondo gabea zen, eta bere borondate onak ere ez mugarik. Horregatik, milak eta milak gutunak idatzi zituen handik eta hemendik eskatzen zitzaion datoak emanaz. Ni neu berandu hasi nintzen gutunok gordetzen, baina nere gordailuan ditudanak bildurik emango ditut Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako, agiri baliagarri asko daudenez.

Bere literatur eraz edo estiloz zer esan? Beretzako idazlerik atseginena Pio Baroja zela esatez aski litzake. Asko esan nahi du horrek Nikolasen alde. Aspalditik, Durangaldeko ikastola eta alfabetatze ekintzetan irakurgaitzat bere liburuak erabili dira. Bere "fauve" pintura bezalako bizitasuna dute irudiz eta giroz; ipuingintzaren alorra landuz, berbiztu zituen haur eta gaztetxoen irudimenak, berbiztu zuen supazterreko oroitza zaharren baitan, sortu zituen ikuspegi ederrak, piztu pertsonaia berriak... beti gogo bera iraunaraziz, kantuz, bakez eta itxaropenez berebaitako sorkunde aberatsetik.

Atsedena irabasia zuen hainbeste lan egin duenak. Ontasuna predikatuz eta exenplu onak erakutsiz igaro zuen munduko bizitza. Geroan ezer bada eta ezer hortan betirako zoriontasunik inori ematen bazaio, gure Nikolas zena han izango da, inor izatekotan.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 2 de los corrientes falleció en Irún, a la edad de 59 años, el hombre bueno, culto y laborioso Nicolás Alzola Guerediaga (Hermano Valentín de Berriochoa en la congregación de La Salle, a la que pertenecía). Un hombre entrañable, amado por cuantos tuvimos la ocasión de conocerle y tratarle. Nicolás, empleando numerosos pseudónimos, ha prestado miles y miles de colaboraciones en las revistas [illegible] país, tanto en castellano como en vascuence. [illegible] sencillez los datos precisos sobre historia y pedagogía, literatura y de las artes plásticas, frecuentemente [illegible] nes oportunas. En el caso de Nicolás, [illegible] apuntado Javier de Aramburu, "era abundar [illegible] distintos al firmar sus trabajos viene a resultar [illegible] bolo de su humildad".

Para quienes compartimos su amistad, relación [illegible] frecuencia, los pseudónimos que usaba eran [illegible] trabajos se pueden reunir para dar autoridad a [illegible] labor realizada por él, pero no así su producción [illegible] queda desperdigada en muchos miles de cartas [illegible] amigos que recurríamos a él en consulta del dato [illegible] que él por su cuenta escribía para puntualizar el dato [illegible] tido o aportando su buen consejo en los momentos [illegible] cualquier cuestión observaba él que los ánimos [illegible] crespados y podía ayudar al apaciguamiento. Por [illegible] con su comportamiento, en numerosas ocasiones [illegible] lo que vale tener un buen amigo.

En más de una ocasión me manifestó que no [illegible] mi talante liberal y quiso que prolongara los de [illegible] primero de la serie de retazos documentales, titulado [illegible] gundo de los cuentos que escribió, **Ipuinak**. Pues [illegible] autor de un libro en castellano y cinco en vascuence [illegible] de todo lo que fue dejando en las publicaciones [illegible] país. Sus obras son, bajo el pseudónimo N. de Cortázar, **autores vascos** (1966), y con el pseudónimo [illegible] (1967), **Bigarren atalak** (1972) y **Hirugarren atalak** [illegible] más **Ipuinak** (1978) e **Ipuinak - II** (1980). Un total [illegible] cuentos ha dejado en prensa. En el primero, [illegible] llano, aporta semblanzas de autores vascos, en su [illegible] critores en euskara; en el segundo, textos [illegible] nes, breves ensayos, anécdotas, poesías y cantares; [illegible] bibliografía; en el quinto y sexto, cuentos [illegible] adaptaciones. Escribió en la variedad dialectal [illegible] comarca de Durango y en euskara unificado; [illegible] dicha comarca, en ikastolas y campañas de [illegible] como libros de texto.

Pero, además, Nicolás Alzola era un buen [illegible] mado bajo las enseñanzas iniciales de N. Madariaga [illegible] cándose como paisajista con cromática [illegible] vista, con cuyas obras instituyó el "Premio [illegible] anualmente obsequiaba con una obra a los [illegible] vasco con motivo de la Feria del Libro en Durango. [illegible] su dedicación a la pintura constituía una [illegible] en su vida de profesor y escritor. El no podía [illegible] que el ejercicio pictórico le servía para los [illegible] que el buen Nicolás no conoció la inacción. [illegible] del descanso al hombre que nunca le faltó [illegible]

Hamar urte kantagintzan

Irakurle lagun batek galdetzen dit, ean zergatik ez lerro batzuk idatzi, Gasteizen eman behar dudan errezitala dela-ta. Zuk, irakurle, lerro hauek irakurri orduko, ospatuta egongo dena; "Hamar urte" deitutako emanaldia, nik kantagintzan daramazkidan urte hoien laburpen gisa gertatutako errezitala, Korpus Egunean, Gasteizen bertan.

Eta zer esan behar ote dut nik?

Lehenengo eta behin, zera esan behar dut: ez nuke nahi, oraingo hontan, orrialde beronetan aztertu ditudan gaietan sartzea. Beraz, hamar urte hoietako zerbait esaterakoan, bazter utziko dut euskal kantagintzaren oztopo eta arazoak. Kritika dela, komunikabideak direla, etab.

Alpa dezadan, halere, gure lana aurrera erameteko dugun azpiegitura eskaxa. Hola ba zen lehen, eta hola da gaurregun ere. Alor hontan, nik uste, zerbaitetan nabarmendu beharko litzateke Euskadin Euskal Gobernu bat izatea. Ni, —askotan adierazia, baina barka bekit irakurleak—, ez naiz babes publikoaren zale, bainan bai laguntza publikoarena. Uste dut bi konzepto hoien arteko muga oso garbia dela. Ba dakit Gobernuan ba daudela pertsona bakar batzuk arazo hau gogoan dutenak, bainan ba dakit, baitere, azpiegitura honen arazo larriari erantzun bat emateko asmatutako proiekto bat edo beste, "kajoi"-ren batean lozorroan ba dagoela ere.

Urte hauetan zehar, saiatu naiz musika tankera bat definituz; hasieran, bakarrik eta tragikoki desagertutako ene lagun mina zen "Pertur"-ekin; gero, Benito Lertxundirekin bi urtez herriz herri, bigarren aholsa eta bigarren kitarra bezala. Batetik, asko ikasi nuen, eta, bestetik, nola ahaztu esperientzia unkigarri hura? (esate baterako, ni Gipuzkoan kantatzea debekaturik nuela, Benitorekin herri batera joan eta, jaialdiaren azkenean, Benitok jasotakoa diruaren erdia neri ematea?) Eta, harreman aldetik, geroago aterako ziren kantariekin izan nituenak ahaztu gabe, ezin dezaket aipatzeka utzi garai bateko "Ez dok amairu" taldeko abeslariekin izandako harreman jator eta betegarriak.

Tematika aldetik, berriz, zera uste dut, oro hartuta: gure belaunaldiko kantariak, eta honekin ez dut esan nahi txarto egiten zutenik eta alor hau jarratu gabea utzi behar daitekeenik, askoz gehiago mintzatu gara "herria" eta era hortako konzepto abstraktoetaz, gure barruan bizituta eta aztertutako bizipen eta sentipeneetaz baino. Horrekin, zera esan nahi dut: orma batean idatzita zegoenaren errepikatzaile gertatzen ginen, eta, alditan, bortxaz izkutatutako gure historiaren aldatzaile; norabidea aldatu beharra zen, alegia, gauza guzti hoiek gureganatu eta bakoitzaren estiloan eman, barruan aztertu eta itzulikatuez geroz. Bestalde, —Letek esan duenez—, gai asko eta asko ukitu gabeak gelditu dira: amodiori buruzkoak, ironiazkoak eta abar. Baina ez gaitezen zorrotzegi eta gogorregiak izan, kantagintza, funtzionaltasun politikoaren defentsazaileen eta iraupenari begiratuz eta ahalik eta espresiorik aberatsena proposatzen zutenen arteko tira-bira eta konfrontazioetatik sortutako giroan desarrollatu behar bait zen. Gauzak horrela ziren eta errazegia izango litzateke hemen "beste era batera beharko zitakeen" esaten hastea.

Ikuspegi horretatik begiratua, saiatzen naiz gaur beste tematika baten hildotik nere bide propioa urratzen. Beste kantari batzuk ari dira hildo beretik; Lertxundiren textu batzuetaz gainera, horra Eizmendi edo Ordorika baten lanak, nahiz eta publikoaren aldetikako onurpena norainokoa den ez jakin. Komunikabideetako egoera negargarriaz gainera, ba da, behar bada (eta hortan nerau ere barru?) euskal kantagintzan mito mugigaitz batzu, kantari berriei (bigarren belaunaldikoak esan nahi dut bidea ixten dietenak. Jendeak, askotan, "Laboa" du gogoan, nahiz eta honek azken bost urte honetan kantatu ez.

Jende gaztea gureganatu behar dugu. Zaila dela ba dakigu. Batzuk, inertziaz, etorri ba datoz kantaldietara, bainan komunikabideetan dagoen desoreka ikaragarriaren arazoa konpontzen ez den bitartean, jai dugu. Alde honetatik, nik uste dut eragin haundia izango duela euskal irrati-telebistak. Batetik, beronen barruan egin daiteken lanagatik; eta, bestetik, medio hauek martxan jarri orduko, orduan besteak ere, agian, hasiko bait dira gauzak, gure gauzak, beste ere batera tratatzen. Hori gertatu zen egunkari abertzaleak kaleratu zirenean, eta horrelako zerbait gerta daiteke Euskalerriko gauzak beste sensibilidade batez ukituko dituen irrati eta telebista martxan jartzen denean.

Pertsona mailan, berriz, gauza asko bizi izateko zoria izan dut hamar urte honetan, onerako eta txarrerako. Bainan lehenengoekin geratzen naiz, azkenean: toki askotan, —berdin gurdi bateun gainean, frontoi batean, nahiz teatro dotore batean— emandako kantaldiak; bisitatutako tokiak (Espainian barnekoak, Frantzia, Belgika, Alemania, Italia, Argentina, Venezuela) eta ezagututako jendeak. Baina luze joko liguke benetan hoien guztien aipamena egiteak, liburu bat osatzeko lain materiala baitut.

Ah!, eta mila esker ta goraintzi, urte hauetan zehar, lagundu ezezik, nere kantaldiak entzuteko eraman oneko pasta ederra erakutsi duzuten guztioi.

Gorka KNORR

Un lector y amigo me requiere para que escriba algo sobre lo que significa el recital (para cuando los lectores de "HOJA DEL LUNES" lean estas líneas, ya celebrado) titulado "Hamar urte", en el Teatro Florida, de Gasteiz, el día 10 de Junio. Y lo hago, no por hablar de mí, sino por lo que tiene de valor el poder narrar alguna que otra experiencia y vivencia que, por ser individual, es, de alguna manera, colectiva también.

Yo debía este recital a Gasteiz y a muchos amigos de Gasteiz, que tanto me ayudaron en los momentos difíciles de mi carrera. Y, a la vez, es una ocasión única de dar un repaso a diez años de canción y a cinco trabajos discográficos, además de presentar novedades.

Diez años, tras los cuales (y sin entrar en los lugares comunes de la desastrosa situación de medios de comunicacion, crítica, etc..., que ya he tocado en estas páginas), encuentro los mismos o parecidos defectos infraestructurales. Si en algo debiera notarse que tenemos un Gobierno autónomo, es en terrenos como éste. Uno sabe perfectamente cuál es la frontera entre la ayuda y la protección mal entendida (que acaba en el funcionariado). Pero uno conoce perfectamente, también lo que, pudiéndose hacer, no se está haciendo: proyectos que nacieron con ilusión, duermen en perdidos cajones (¿qué fue de la carpa portátil que, por cierto, esperan tantos ayuntamientos?); hoy dificilmente [illegible] quilar un teatro. [illegible] hoy es el día que [illegible] des ni se han podido [illegible] nos en que las [illegible] cultura en euskara [illegible] misión. Con la [illegible] que cuesta una [illegible] hacer una gran [illegible] este respecto, tengo [illegible] nemos bastante [illegible] rentabilidad [illegible] blar de la rentabilidad [illegible] sacar para [illegible] sión y televisión [illegible] el de la carpa.

He intentado [illegible] definir un tipo de [illegible] mero (con la [illegible] desaparecido "Pertur") [illegible] gunda guitarra [illegible] después (quizás [illegible] rra!), creando un [illegible] hasta llegar a [illegible] con dos guitarras [illegible]

He buscado [illegible] mación tendencia [illegible] entender los [illegible] canción, creyendo [illegible] en el que se [illegible] posiciones de [illegible] por una parte, [illegible] continuidad de [illegible] kera, cuidando [illegible] sión, por otra [illegible] canción giro [illegible] tos abstractos [illegible] lela en una [illegible] traducir una [illegible] aquí y allí, [illegible] que en el [illegible] autor. Con [illegible] ha ido cambiando [illegible] temas más [illegible] mente vivos [illegible] por eso [illegible]